

MUNIATEGI'TAR SABIN

Gomutaki - tantak

Atzo, illaren azkenengo zapatuan, «Euskerazaintza'ren batzarra Deba'n. Bazkari ostean, Motriku ta Ondarru'tik zear Markiña'ra, neure arreba ta lobak agurtzera (bidezko zan, aurreko martitzenean gure arreba Brijida'ri lurra emona giñen eta). Andik, biotz samur batzuk Lekeitio'n agurturik, Izpazter eta Ereño azpitik, Muruetagane'n eskumera artuz, beeko sakonean, len euskal baserri bizitza biko bat eta gaur erakunde ongille batek, aren eta onein diru-laguntzaz osoturiko etxe zabal jagi dotore bat ikustera. Bilboko ta inguruetako gazte pillo batek egiña da, lekuz eta lanez bikain-bikaiña; danetik dago eta danetik ikasten dabe ara doazen neska-mutiko gazteak, beiak eta auntsak zaintzen, gaztaiak, mermeladak, otzarak, eta ostantzeko zer guztiak egiten. Andik Artia'ra.

Nik agindu bat artu dot, Muniategi olerkariari buruz idazlan bat, baiña nik aregaz izandako artu-emonakaz batez be. Nik izan dot artu-emonik aregaz, euskal literaturan ekitean atan be. Ona: 1) Ikasle nintzala, a eta Lauaxeta ikusten joan oi giñan Begoña'tik Bilbao'ra; 2) «Milla Euskal Olerki Eder» liburua biribiltzea, aren, 7 olerki arenak («Udako gaba», «Atzipetuarena», «Eta orain...», «Arrain-saltzaillia», «Inguma bati», «Ume itxastararena», «Edertasun galduak»). Bidean gora (Bilbo, 1970), 184 orrialde, 98 olerkiz orniduta; neuk

egin neutson itzaurrea; 4) Euskal Literatura» (VI), emen dator aren aipamen eta kontatze luzea; 5) «Bizkaiko Olerkariak» (Deustu, 1990), 399 orrialde.

Ara beera, Muniategi'ren jaiotz-etxerantza ostera labur bat egitekotan etorri gara, baiña negua da, eta eguna labur; eta emen berton, Asier eta onen amagaz egotaldi eta autu aspertu bat eukiteko asmoz, onen atean oles egin dogu; ez egozan etxean, gu gogoratu ez, baiña Artia'n San Polikarpo jaiak izan; baiña alan be, etxean egozan amama ta seme gazteena, onek (itxastar izana berau) oso txeratsu artu ginduzan, familiako ta erriko ainbat izpar emonez. Bidenabar jakin dogu Artia erri ospetsua dala eta bikaiña, gizonez, itxastarrez, politikuz, eta nik andik alde egikeran: «*Eta olerkigintzan*».

Olantxe da izan be, Kanala ta Katia tarteko Gernika ibai gainetxoan munduratutako mutil gaztea olerkari jatzu. Gaztetxo zala izan zan Filipinas'en eta, eder-zale zalako, ainbat gauzaz arinkoan eta onunzkoan aseturik bere barrua, liburu polit bat eskiñi euskun bertsoz betea: Goiz-Aize (1935), lenengo frutua, erbeste zear ibilli ta etxeratzean. Noiz asi zan olerkiak tajutzen? Manila'n aurkitzen zala, antza danez. Manila'ko «La Opinión» en agertu zan beintzat, Rizal aundiaren «Maria Clara», Muniategi'k euskerara itzulita.

Nik onela dakart «Euskal Literaturan»: Ariz-ari iritxi oi zaigu egunero argi-urratzea, olaxe olerkariaren ospea ere. Muniategi'k beñaola «Biotza'ren Deya» zeritzan poema argitaratu zuen «Euzkadi»-n eta Lauaxeta'k oar au ipiñi zion bealdean: «Olerkari barri onek ez dakigu zer daukan, baña euskereak eztau gaur gaur arte entzun olako gauzarik». Bai-zijoan abarrotsa aziagotuz, argi-izpiak edatuz» (Euskal Literatura, VI, 226'an orrialdean).

«Euzkadi»-n idaztean eta «Goiz-Aize» argitaratzean, Lauaxeta'k aupaturik, arrakasta polita izan eban Muniategi'k. Ni eta beste batzuk ikasle gintzazan Begoña'n, euskal olerki aizeak joak,

nunbait. «Euzkadi»-ra euren lan-tokira jatsi oi giñan sarritan; gure poza ta arein guri erakutsi bearra! Oleritari buruz alkar-izketa bizi-luzea arnildu ondoren, eder zale-zale egiñik biurtzen giñan Karmelo'ra! Olan ia sei illabetean.

Gudeak banandu ginduzan. Ni Elgeta ta Intxorta aldean «Kirikiño» batailloan ibilli nintzan, Muniategi ostera «Muñatones»-en, Elorrio'n, intendentzian joan eta ogei bat egunera, Elorrio'ko Guda etxeak izparkari ta gudari-sustatzaille izentatu eben; orduan be olerki naikoa ondu ebazan, «Euzkadi»-n argitaratuz. Lauaxeta'k iñoan: «Dana emon bear yako astasunari», eta Muniategi'k ainbat bertso olako sentimentuz gaiñezka 1937'ko apirillaren 26'an Gernika'n dozu Sabin. «Arteagan bere errian, bombardaketan eta gerran zear ildakoak edo gero fusilatuak, gu tira amairu-amalau bat izan ei ziran, ia danak Sabin'en sasoikoak».

Urte bete bat egon zan espetxean. Andik urtenik, an eta emen atea jo arren, ez eban aurkitu lan segururik; 1941'an sartu zan Donosti'ko Rezola'n eta ementxe batzutan itxasoan eta beste batzuetan portuan, kanporako ateraten zan zementuaren kontua eroanik: Orrela mundu zabala ikusteko erea izan eban. 1949'an Maria Pilar Bereziartuagaz ezkondu zan, iru alaba ta seme bat izanik. Urteetan Errera'n bizi izan zan, naiz-ta azken urteetan, osasunagaitik, Errenderi'ra aldatua izan.

Ni neure «Milla...» liburua ateratzean, bere billa ibilli nintzan, eta azkenez, 1954'antza, Donostiko kaian, bere eguneroko lanean, aurkitu neban. Arrezkero guztian, adiskide miñok, estu-estu euskal olerkigintzan jardunak gara. «Oleri»-n idatzi oi eban, eten barik, 1962'tik aurrera; urtero etorri oi zan Larrea'ko «Oleri-Egunetara»; ainbat sari eskuratu ebazan, nik Donosti'ra joan eta astia nebanean, sarri joan oi nakion agerraldi bat egiten, beti txeratsu artua. Gure azken ikustaldia, oindiño Errera'n bizi zala, Errenderin izan zan. Ni Errenderikoak eurak eskatuta, Aita Errenderi kaputxino olerkariaren lan bat osotzen nenbillan, datu batzuen billa ara joango nintzala alako arratsaldean eta an alkartuko gintzazala jardunaldi txeratu bat egiteko. Ni kotxean eta bera oiñez, an batu

giñan esandako ordu-orduan. Ordu-zale, ona eta esanekoa zan, pare bat ordu alkarrekin emon, eta ondoren geltokira lagundu mindun.

Prosaz ez eban esatekorik idatzi, dana olerkiz. Irakurriz askoikasía, iturritik ura lez borboarka etorkon bertso-lana. Asko idatziz bere era berezia eukon, bere gauza apartekoz betea. Erdal olerkari askoren itzulpenak osotu arren, jatorra aren lanik geiena, neurri askoz eta bulko ta pentsamentu bikaiñez blei-blei. Nik sarri idatzi izan dot euskal olerkari bipil oneri buruz; azken orduko «Bizkaiko Olerkariak» liburuan lau orrialde apaiñeko irudia daukazu.

Aita Julen Urkitza karmeldar langilleak igaz argitara ekarritako Sabin Muniategi'ren OLERKI GUZTIAK liburuak merezi eban argitaratzea. 1.155 orrialde ditu. Euskal literaturan oraindik egin ez lakoxe argitalpena. Sabin'en poesi-lana, liburu ta aldizkari, urterik urte daukazu bertan. Merezi dabez txaloak olerkariak lez argitalpenaren gertatzailleak.

Askotan, zoritxarrez, aintzat artu barik geratu oi dira onako indarketak, onako arnasemoteak. Alan be, olerkariak dira erriari, bere arazo guztietan, sua dakartsenak, adimenak ederrez eta biotzak su beroz biztu oi dautsezanak. Jo onesgarri danari eskuzafla gartsuak.

Edo Kristok bere belaunaldikoai esandako atsotiz zarra arpegira bota bearko:

*Guk turuta jo dautzuegu
eta zuek ez dozue dantzarik egin;
guk negar soiñuak asi,
eta zuek negarrik egin ez.*

Muniategi'tar Sabin, turut-jotzaille bikaiña dogu euskal literaturan.

Aita Onaindia